

ALDE ZAHARREAN IBILGAILUZ SARTZEKO BAIMENEN ARGIBIDEAK

1.- ZEINTZUK DIRA OHIKO BAIMENAK?

Alde zaharrean bizitzeagatik, alde zaharrean garaje baten erabiltzailea izateagatik, herriko gremio edo merkatari izateagatik edo bigarren bizitexea alde zaharrean izateagatik, udalak alde zaharrean ibilgailuz sartzeko baimena eman badizu, zure baimena OHIKO BAIMENEN artean dago.

***Gainerako baimen guztiak behin-behineko baimenak dira:** Egun baten sartu beharra izateagatik edo aurreko paragrafoan jasota ez dagoen arrazoi zehatz bategatik udal baimena badaukazu, baimen horrek ez dauka ohiko baimen izaerarik eta erabakian jasota dagoen epean baino ez da izango da aplikagarria, hau da, ez zaio luzapen automatikorik aplikatuko.

2.- DAUKADAN BAIMENA OHIKOA BADA ZER EGIN BEHAR DUT?

Ezer ere ez. Udalak automatikoki beste urtebeterako luzatuko du eta ordura arte izan duzun baimena indarrean egongo da.

***2021 urtean zehar udalak kasuz kasu egoerak aztertu eta emandako baimen guztien egoera eguneratuko du, baimenaren arrazoiarekin bat datorrela bermatzeko.**

3.- DAUKADAN BAIMENA OHIKOA EZ BADA ZER EGIN BEHAR DUT?

Zure baimena behin behinekoa bada:

1.- Erabakian jasota dagoen **epea begiratu**. Epe hori igarota, ez zenuke alde zaharrean ibilgailuz sartzeko baimenik izango eta sartuko bazina, isuna jasoko zenuke.

2.- **Alde zaharrean ibilgailuz sartu behar bazara eta baimena iraungita badaukazu, eskari berria egin behar duzu BERHAZ bulegoan edo egoitza elektronikoan, izenpetuta eta sarrera erregistroa emanda, Udaltzaingoak kasua aztertu eta epe berria duen baimen berria emateko.**

Gogoratu: **ASTELEHENETIK ZAPATURA, 8:00ETATIK 13:00ETARA** zamalanak egiteko alde zaharrean sartzeko aukera dagoela baimenduta egon zein ez.

